

Manu Aierdik iragarri du dimititu egingo duela Gorenak ikertzen badu

Kontseilariak gutun bat bidali dio Maria Txibite Nafarroako lehendakariari, eta argitu du gobernua utziko duela auzitegiak ikertu gisa hartzen baldin badu

Erredakzioa

Espainiako Auzitegi Gorenaren esku dago Manu Aierdik Nafarroako Gobernuan jarraituko duen. Herenegun, albiste jakin bezain azkar, «harridura handia» erakutsi zuen Aierdi Garapen Ekonomikoko kontseilariak, eta atzo gutun bat bidali zion Maria Txibite gobernuko lehendakariari. Bertan, adierazi du «dimititzeko borondate irmoa» duela baldin eta Auzitegi Gorenak ikertzea erabakitzen badu. Oraindik ez da halakorik gertatuko, baina Gorenak hori egingo balu, Aierdik aurreratu du kargua utziko lukeela.

Autoaren arabera, UPNk ekainean Aierdiren aurka jarritako salaketari bide eman zion Gorenak; auzia ireki zuen, eta Andres Palomo del Rio epailea izendatu zuen instrukziorako. Hark erabakiko balu Aierdi ikertutzat hartzea edo deklaratzera deitzea, Aierdik gobernua utziko luke.

Gutunean, hori gertatuko baltz, Aierdik astebete eskatu du «egoera aztertzeke eta agurtu



Manu Aierdi kontseilaria, joan den maiatzean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

ahal izateko». Ondoan izan ditueni «merezue duten agurra» emateko aukera eskatu dio Txibiteri. «Bitartean, lanean jarraituko dut, Nafarroaren etorkizunaren aldeko konpromiso irmoa baitut, nire erabakiekin ahalik eta hobekien lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialaren aldeko ekarpena eginez».

14/2004 Foru Legeak zehazten duenez, kargudun publiko bat ikertu gisa hartuz gero, prozedura

judizial bateko figura hori ez da bateragarri emandako konfiantzarekin, eta, hori jakinik, gobernuak herenegun aurreratu zuen Aierdik kargua utzi beharko lukeela.

Unai Hualde EAJren Nafarroako presidentek atzo Radio Euskadin salatu zuenez, «jazarpen politiko bat» ari da gertatzen, eta «sakonki bidegabea» da. Nafarroako jeltzaleen burua izan zen Aierdi 2012tik 2015era.